

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren ebazpena, 2016ko urriaren 06koa. Honen bidez, Lehiaketarako deia Garbiketako eta Zerbitzuetako 2 lanpostu hutsak betetzeko Gazteriaren Foru Erakundearen

Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialistaren 2 lanpostu huts daude Gazteriako Foru Erakundearen. Lanpostu horiek langile finkoek betetzeko gorde dira, diruz hornituta daude aurrekontuetan eta lehiaketa bidez beteko dira, indarrean dagoen lanpostu zerrendan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateratuko 78. eta 79. Artikuluetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1059/2016 sententziaren arabera, eta 6/89 Legearen, Euskal Funtzio Publikoarenaren, 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateratuko 37. artikulua arautzen duen entzunaldiko izapidea bete da, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen VI. tituluarekin harremanetan.

Horiek horrela, Ekonomia Jardueren Kudeaketari eta Deszentralizatutako Foru Zerbitzu Publikoei buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 7. artikuluan xedatutakoaren harira Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu, eta Kontuhartzailatza Zerbitzuaren ezinbesteko eta alde zuzeneko txostena eskatu da.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskera, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, funtzio publikoan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailarekin elkarlanean, Erakunde Autonomoko funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuen deialdia eta oinarriak onartzea; bere ardura izango da, baita ere, prozedura horiek ebaztea.

XEDATZEN DUGU

Lehenengoa. Lehiaketarako deia egitea Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista 2lanpostu betetzeko Gazteriaren Foru Erakundearen.

Bigarrena. Onartzea hartan eskainiko diren lanpostuak, deialdia arautuko duten oinarriak, eta, lehiaketan parte hartzeko, bete beharreko eskaera orria. Horiek guztiak I., II. eta III. eranskinetan adierazten dira, hurrenez hurren.

Hirugarrena. Deialdiaren xede diren lanpostuei esleitutako zeregin eta egitekoen zerrenda argitaratzea (IV. eranskina).

Laugarrena. Deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko, hamabost egun balioduneko epea irekitzea. Epe hori ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Bosgarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, hura ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998

Legeak, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duenak, bere 46.1. artikuluan - azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 116. artikuluan xedatutakoarekin loturik– xedatutakoarekin bat etorri.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 27a

Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO

I. ERANSKINA

Planak eragindako lanpostuen zerrenda

ARLOA : 2 EGOITZAK

UNITATEA: 30.10000 BARRIAKO ATERPETXEA

KODEA LANPOSTUA			LANPOSTUA	LANPOSTU MOTA	KONTRATAZIO ERREGIMENA	DEDIKAZIO ERREGIMENA	BETETZEKO ERA	TITULAZIOA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	DERRIGORTASUN DATA
11	12	22	Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista	N	Aldizkako laborala	Arrunta	Lehiaketa	C/C2	1	—

ARLOA : 2 EGOITZAK

UNITATEA: 30.20000 ESPEJOKO ATERPETXEA

KODEA LANPOSTUA			LANPOSTUA	LANPOSTU MOTA	KONTRATAZIO ERREGIMENA	DEDIKAZIO ERREGIMENA	BETETZEKO ERA	TITULAZIOA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	DERRIGORTASUN DATA
11	04	29	Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista	N	Laborala	Arrunta	Lehiaketa	C/C2	1	—

II. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRIAK, LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO GARBITASUN ETA ZERBITZUEN ESPEZIALISTA LANPOSTU HUTSAK GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEKO ATERPETXEETAN

LEHENENGOA.- DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen helburua da II. eranskinean zerrendatzen diren lanpostu hutsak lehiaketa bidez betetzea.

Ondore fasea egingo da hasieran deitutakoak esleitzetik hutsik geratzen diren postuekin eta lehen fasean betetzen ez direnekin, salbu eta behar bezala justifikatutako antolaketa beharriaz nek gomendatzen badute ez sartzea ondore fasean.

Ondore fasean, lehen fasean parte hartu ez dutenek baino ezin izango dute esku hartu edo, parte hartu arren, lanposturik lortu ez dutenek.

Oinarri hauek aplikatzekoak diren arauen menpe daude, eta bereziki hauen menpe:

– 5/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzkoa.

– 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

– 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duena.

– 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duena.

– 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, sartzeko, lanpostuak betetzeko eta mailaz igotzeko arautegi orokorra onartzen duena.

– 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

– 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki araubidean indarrean dauden ebazpenen testu bateratua onartzen duena.

– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Prozedura Erkidearena.

BIGARRENA.- PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK.

Deialdi honetan parte hartu ahalko dute Gazteriaren Foru Erakundeko langile finkoek, baldin eta ondoko betekizunak betetzen badituzte deialdia ALHAOn argitaratzen den egunean:

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean edozein jarduneko egoeratan izatea, eginkizun gabetze irmoan izan ezik, horrek irauten duen bitartean. Borondatezko eszedentziako administrazio egoeratik parte hartu ahal izateko, izan norberaren intereserako eszedentziatik edo izan familia bateratzekotik, berriro sartzeko behar den gutxieneko denbora igarota izan behar du.

2. Lanpostu zerrendan agertzen diren betekizunak betetzea. I. eranskinean zehazten dira, lanpostu bakoitzerako. Esleitutako lanpostuez jabetu arte bete beharko dira betekizunak.

3. Deialdi hau argitaratu aurreko bi urteetan behin betiko destinorik lortu ez izana, lehiaketaren, barne sustapenaren edo kanpoko hautaketaren bidez.

Denbora muga hori ez da aplikatzekoa izango baldin eta hura amaitu baino lehen, lortutako lanposturako atxikipena galdu bada, lanpostua kendu delako edo titularra lanpostuz aldatu delako gerora sortutako zioengatik, betetzen zuen lanpostuaren edukia aldatzea dela medio edo lanpostuan behar adinako errendimendua ez emateak bertan jarduteko erakutsitako ezgaitasuna tarteko.

Behin-behineko atxikipena duten langile finkoak edo aldizkako finkoak behartuta daude, egoera horretan dauden bitartean, lehiaketa honetan parte hartzera bere kategoria edo talde profesionala diren lanpostuak betetzeko. Lehiaketa honetan eskatutako destinoak lortzen ez badituzte eta euren behin-behineko atxikipena lekualdatzen bada lehiaketan eskainitako lanpostuen esleipenen ondorioz, lehiaketan eskatu eta lortutako lanpostuak esleitu ondoren hutsik geratzen diren euren talde profesionaleko lanpostu hutsetan izango dute behin-behineko atxikipena.

Lanpostua kendu edo lanpostuaren edukia gerora aldatu izanaren ondorioz lanpostu gabetu edo lanpostuz aldatuak izan diren eta behin-behinean lanpostu batera atxikita dauden langile finkoak edo aldizkako finkoak lehentasuna izango dute lehiaketa honetan kendu edo aldatu zen lanpostuaren maila bereko edo beheagoko destino osagarria duten eta herri berean dauden lanpostu hutsak betetzeko. Lehiaketa honetan behin betiko lanpostua lortzeak ez du eragotziko datozen bi urteetan deitzen diren lehiaketa espezifikotara aurkeztea.

Lanpostu batera lehentasun eskubide desberdineko bi pertsona edo gehiago aurkezten bada, lehentasuna izango du lanpostua kendu edo lanpostuaren edukia gerora aldatu izanaren ondorioz lanpostuz aldatuak izatetik datorkiona lehentasun hori. Lehentasun eskubide bereko bi pertsona edo gehiago aurkezten badira, berriz, merezimenduak baloratuko dira eta puntuazio handiena lortzen duenari esleituko zaio.

HIRUGARRENA.- KOMUNIKAZIOAK ETA JAKINARAZPENAK.

Prozedura honek sortzen dituen komunikazio eta jakinarazpenak Gazteriaren Foru Erakundearen iragarki taulan argitaratuko dira. Intranetean ere web orrian argitaratuko dira.

LAUGARRENA.- PARTE HARTZEKO ESKAERA.

Lehiaketan parte hartzeko eskaerak deialdi honen III. eranskinean jasotako eredu normalizatuan aurkeztuko dira, Gazteriaren Foru Erakunde Administrazio Kontseiluaren Buruari zuzenduta, Gazteriaren Foru Erakunde Erregistro Orokorrean (Joaquín José Landazuri, 3-behea; 01008 Gasteiz) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4 artikuluan adierazitako edozein bulegotan. Horretarako, 15 egun balio-duneko epea izango da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaeran honako hauek jarri behar dira:

- a) Deialdi honen bigarren oinarrian eskatzen diren betekizunak betetzen direneko aitortpena.
- b) Eskatzen diren lanpostuak, lehentasun hurrenkeran.
- c) Alegatzen diren merezimenduak. Merezimenduak ziurtagiri bidez egiaztatu behar dira, eta ezin da alegatu horiek Arabako Foru Aldundiaren administrazio agiritegietan badaudela.

Ez da honako hauen ziurtagiririk aurkeztu beharko:

- a) Gazteriaren Foru Erakundeak aitortutako antzintasuna.
- b) Gazteriaren Foru Erakunde lanpostuetan egondako denbora, egindako lanaren balioespenerako.

Lanpostuak esleitzeko zorrotz jarraituko da eskaeran adierazitako lehentasun hurrenkera. Uko edo atzera egiteak, egitekotan lehiaketa osoari egin beharrekoak, Balorazio Batzordeari eskatuko zaizkio alegazioetarako epea amaitu baino lehen, hain zuzen ere lehiaketako puntuazioak behin-behinean argitaratutakoan egitekoak diren alegazioen epea amaitu baino lehen, hori baita destinoak esleitu aurretik egin behar den urratsa.

Merezimenduak balioesteko erreferentzia data deialdia ALHAOn argitaratzen den eguna izango da eta ez dira kontuan hartuko eskaerak aurkezteko epearen barruan egiaztatzen ez diren merezimenduak, nahiz eta haien aipamena egin eskaeran.

Merezimenduak eta betekizunak proba batean egiaztatzen direnean, proba egin arte atzeratuko da aipaturiko erreferentzia data.

Ezintasunen bat duten langileek lehiaketan parte hartzeko eskaera orriarekin batera adierazi ahal izango dute eskatzen dituzten lanpostuak egokitzeko beharra. Balorazio batzordeak bana-banako elkarrizketan eskatu ahal izango dio interesdunari eskatu duen egokitzapenaren gaineko informazioa, bai eta eskumena duten organo teknikoen irizpena ere egokitzapen beharrraren gainean eta lanpostu jakinaren zeregin eta egitekoetarako bateragarritasunaren gainean.

BOSGARRENA.- ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDAK.

Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, Gazteriaren Foru Erakundeko Adminiztrazio Kontseiluaren Buruak Gazteriaren Foru Erakundearen iragarki taulan eta web orrian emango du argitara lanpostu bakoitzerako onartuen eta baztertuen zerrenda, eta 3 egun balioduneko epea irekiko da, hura argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita, erreklamazioak aurkezteko. Epe hori igaro eta erreklamazioak ebatzita -horrelakorik egonez gero-, argitara emango da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

SEIGARRENA.- BALORAZIO BATZORDEA.

Merezimenduak, bai orokorrak bai espezifikoak, balorazio batzorde batek balioetsiko ditu. Gazteriaren Foru Erakundeko Adminiztrazio Kontseiluaren Buruak izendatuko ditu horiek. Batzordearen osaera langile onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da, hartako kideen egokitasuna eta gaitasuna bermatuko da eta, ahal den neurrian, baita emakumeen eta gizonen arteko oreka ere.

Hauexek osatuko dute batzordea: batzordeburu bat, idazkari bat eta hiru kide.

Balorazio batzordeetako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

Balorazio batzordeetako kide izango direnen egokitasuna eta gaitasuna bermatzeko, deialdia egiten duen organoak zainduko du kideek deitutako lanpostuen eginkizunen edukia ezagut dezaten, bai eta deialdian erabiltzen diren hautaketarako eta merezimenduak egiaztatzeko teknikak ere. Orobat, merezimendu espezifikoen lehiaketa denean, ahalegina egingo da gutxienez kideen erdia deitutako lanpostuen eginkizun arloan jardundakoa izan dadin edo arlo horretako ezagutzak izan ditzan.

Balorazio batzordeek ebatziko dituzte arau hauek aplikatzean sor litezkeen zalantza guztiak, bai eta aurrekusi gabeko kasuetan zer egin ere.

Boto berdinketarik gertatuz gero, batzordeburuak izango du kalitate botoa.

Balorazio batzordeak ezin izango dira osatu eta ezin izango dute jardun, gutxienez hiru kide bertan ez badaude, titularrak zein ordezkoak, eta gainera, batzordeburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute nahitaez.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero, balorazio batzordeetako kideek ezingo dute lan horretan jardun, eta deialdia egin duen organoari horren berri eman beharko diote. Gainera, izangaiak kideak errekusatu ahal izango dituzte.

Hautaketa prozesuko edozein unetan balorazio batzordeak jakiten badu izangairen batek deialdian ezarritako betekizunen bat edo gehiago ez duela betetzen, betiere interesdunari entzun ondoren, izangai hori bazter dezala proposatu beharko dio organo eskudunari, izangaiak eskaeran azaldutako oker edo faltsukeriak adierazita.

Balorazio batzordeak hautaketa prozesuko edozein unetan eskatu ahal izango ditu alegatutako merezimenduen balioespen prozesuaren edozein fasetan eragina duten jatorrizko agiriak.

Jarduteko prozedura une oro lotuko zaio Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren 40/2015 legeak 3. Artikulutik 12. Artikulura eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 15. artikulutik 24. artikulura bitartean ezarritakoari.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketetan, IVAPeko ordezkari bat ere arituko da.

Balorazio batzordeek adituak izendatu ahal izango dituzte; aditu horiek aholkulari moduan arituko dira beren espezialitateko gaietan, hitzarekin baina botorik gabe.

ZAZPIGARRENA.- LEHIAKETA AURRERA ERAMATEA.

Honako honek osatuko du lehiaketa: Merezimendu orokorren fasea, lanpostu guztietarako.

A) Merezimendu orokorrak

Fase honetan, gehienez ere 11 puntu lortu ahal izango dira. Balioespena honela egingo da:

1. Egindako lanaren balioespena

Lehiatzaile bakoitza aritu izan den lanpostuen eduki teknikoaren (egitekoak eta zereginak) eta eskatzen dituenen arteko antzekotasuna baloratuko da.

Gehienez ere, 4,25 puntu lortu ahal izango dira:

a) 0,05 puntu hilabete oso bakoitzeko, gehienez 4,25 puntu, bete beharreko zeregin eta eginkizunak kontuan hartuta, lehiatzen den lanpostuaren eduki tekniko bereko lanpostuetan egindako lanagatik.

b) 0,025 puntu hilabete oso bakoitzeko, gehienez 3 puntu, lehiatzen den lanpostuaren eduki teknikoa eta lanean egondako lanpostuena antzekoa denean.

c) 0,010 puntu hilabete oso bakoitzeko, gehienez 1,5 puntu, titulazio talde berberari dagozkion lanpostuetan egindako lanagatik.

Aurreko b) eta c) ataletako emaitzak batuta, gehienez ere, 3 puntu lortu ahalko dira.

2. Antzinasuna

Aintzat hartuko da herri administrazioen zerbitzura egindakotzat aitorturiko antzinasuna. 3,5 puntu lor daitezke gehienez, hain zuzen ere, 0,012 puntu lanean egindako hilabete oso bakoitzeko.

3. Ikasketa tituluak

Lehiatzen den lanpostua lortzeko beharrezkoak direnez bestelako ikasketa titulu ofizialak balioetsiko dira, lanpostu horren eginkizun arloarekin duten lotura kontuan hartuta, gehienez 2 punturaino, ondorengo baremoaren arabera:

– Bigarren mailako Lanbide Heziketa, edo baliokidea: 0,50 puntu.

– Lehen mailako Lanbide Heziketa, edo baliokidea: 0,25 puntu.

Ez dira balioetsiko lanposturako derrigorrezkoa den titulua lortzeko beharrezkoak izan diren titulazio apalagoak, ezta merezimendu gisa balioetsi direnak ere.

4. Prestakuntza ikastaroak.

Eskatzen diren lanpostuen berezko eginkizunekin edo horietan jarduteko eskatzen diren trebetasunekin lotura duten gaietan jasotako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak balioetsiko dira. Ez dira sartuko atal honetan hizkuntza ikastaroak.

– 0,25 puntu, gutxienez 100 orduko ikastaro bakoitzeko.

– 0,15 puntu, gutxienez 50 orduko ikastaro bakoitzeko.

Ziurtagirietan ordu kopurua zehaztu beharko da, bestela ez dira balioetsiko.

Atal honetan gehienez ere 1,25 puntu lortu ahal izango dira.

ZORTZIGARRENA.- Euskara jakitea

Derrigortasun data iraungita duten lanpostuak eskuratzeko nahitaezkoa izango da dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzea.

Gainerako lanpostuetarako, euskara merezimendu gisa balioesteko kontuan izango da eskatzen den lanpostuaren hizkuntza eskakizuna, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak ezarritakoari jarraiki eta baremo honen arabera:

LANPOSTUAREN HE	EGIAZTATUTAKO HE	GEHIENEZKO PUNTUAZIOAREN EHUNEKOA
1	2, 3, 4	6,25
1	1	5,00

Euskararen hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko IVAPen ziurtagiriak edo ziurtagiri baliokideak aurkeztuko dira.

Halaber, onartu egingo dira deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurreko paragrafoan aipatzen den deialdi bateratua ebazten den arte lortutako ziurtagiriak edo hizkuntza eskakizunak.

BEDERATZIGARRENA.- BERDINKETA, LEHIAKETA OSOKO PUNTUAZIOAN.

Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek baliatuko dira berdinketa apurtzeko:

a) Gainerako lanpostuak: Kontuan hartuko da atalen hurrenkerari jarraituz lortutako puntuazioa:

1. Egindako lanaren balioespena.
2. Ikasketa titulazioak.
3. Prestakuntza ikastaroak.

b) Berdinketak jarraituz gero, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4) artikulua aplikatuz, administrazio edozein kidego, eskala, maila eta kategoriatan emakumeen ordezkari eta ehuneko 40 baino txikiagoa baldin bada, emakumeari lehentasuna emango zaio, nola eta beste izangaiak ez dituen sexu bereizkeriazkoak ez diren zioak neurri hau ez aplikatzeko, hala nola enplegu sustapenerako zailtasun bereziak dituen kolektiboren batekoa izatea.

c) Oraindik ere berdinketak jarraitzen badu, administrazio publikoetan egindako zerbitzuengatik antzintasun gehien egiaztatzen duenaren alde egingo da.

d) Oraindik ere berdinketa apurtzeko irizpide gehiagoren beharrik badago, balorazio batzordeak finkatuko lituzke, merezimenduaren printzipioari jarraiki.

HAMARGARRENA.- EMAITZAK ARGITARATZEA.

Merezimenduen balioespena Gazteriaren Foru Erakundearen iragarki taulan eta web gunean argitaratuko da eta 10 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko balorazio batzordean, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

HAMAİKAGARRENA.- LANPOSTUAK ESLEITZEA.

Lanpostuak esleitzeko hurrenkera lortutako puntuazio osotik eta lehiatzaileek adierazi dituzten lehentasunetatik ondorioztatzen dena izango da; hori guztia, destino esleipenerako lehentasunezko eskubideari kalterik egin gabe, lehenago zeukaten lanpostua kentzearen ondorioz lanpostu bati behin-behineko moduan atxikita daudenei, bai eta 2009ko lehiaketan parte hartu arren, destinatorik lortu ez eta lanpostu bat behin-behineko moduan atxikita dauden funtzionarioen lehentasunezko eskubideari ere.

Irizpide horien arabera, Balorazio Batzordeak, aurkeztu zaizkion erreklamazioak ebatzi ondoren, destinoa esleitzeko proposamena egingo dio Gazteriaren Foru Erakundeko Adminiztrazio Kontseiluaren Buruari.

Lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetu beharko da, eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko da, egoera hauetan izan ezik: lanpostuaz jabetzeko epea amaitu baino lehen deialdi publikoaren bitartez beste destino bat lortu izana; gerora sortutako ezgaitasuna; zerbitzu aktiboa ez den beste egoera batera iragan izana; edo bestelako ezohiko zioak, behar bezala justifikatuak eta deialdia egiten duen organoak ontzat emanak.

Lehiaketari buruzko ebazpenak berekin badakar funtzionarioak etxebizitzaz aldatu beharra, behar horrek borondatezko izaera izango du eta funtzionarioak ez du kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

HAMABIGARRENA.- IZENDAPENA ETA LANPOSTUAZ JABETZEA.

Lehiaketaren ebazpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean utziko da jatorrizko lanpostua. Salbuespenez, epe hori luzatu ahal izango da behar bezala arrazoitutako egoera batzuetan. Zerbitzuko arrazoiengatik jatorrizko lanpostua uztea atzeratu zaionari lanpostu berriaren egindakotzat kontatuko zaio jatorrizkoa benetan utzi arte igarotzen den denbora.

Lanpostuaz jabetzeko data jatorrizkoa uzten den egunaren hurrengoa izango da. Ebazpenak zerbitzu aktibora itzultzea badakar, lanpostuaz jabetzea lehiaketaren ebazpena argitaratzen den egunaren hurrengo hiru egun baliiodunen barruan egin beharko da.

Antolamenduko zioengatik hala egitea komeni denean, esleipen ebazpenean finkatu ahal izango dira esleipendunen jatorrizko lanpostua uzteko eta lanpostu berriaz jabetzeko data zehatzak.

HAMAHIRUGARRENA.- AURKARATZEA.

Oinarri hauek, deialdia bera eta horretatik eta balorazio batzordearen jardunetatik sortzen diren administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasu eta moduetan.

III. ERANSKINA**LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETA / ONARPEN ESKAERA****CONCURSO DE PROVISIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO / SOLICITUD DE ADMISIÓN**

DATU PERSONALAK / DATOS PERSONALES	
NAN / DNI
Izena / Nombre
Abizenak / Apellidos
Helbidea / Domicilio
Herria / Población	Probintzia / ProvinciaPK / CP
Teléfono	Posta elektronikoa / Correo electrónico
Ezinduen oharrak / Observaciones discapacitados

ESKATUTAKO LANPOSTUAK / PUESTO SOLICITADOS		
Kodea / Código	Izena / Denominación	Unitatea / Unidad
111222 <input type="checkbox"/>	Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista Especialista de Limpieza y Servicios	Barriako aterpetxea Albergue de Barriá
110429 <input type="checkbox"/>	Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista Especialista de Limpieza y Servicios	Espejoko aterpetxea Albergue de Espejo

EUSKARA / EUSKERA

Ezarri X bat egiaztatuta daukazu hizkuntza eskakizunean

Marque con una X el perfil lingüístico que acredita

HE/PL 1 HE/PL 2 HE/PL 3 HE/PL 4

EGIAZTATZEN DIREN MEREZIMENDUEN ZERRENDA RELACIÓN DE MÉRITOS QUE ACREDITA		
BESTE ADMINISTRAIOETAKO LANPOSTUETAN EGINDAKO LANA / DESEMPEÑO DE PUESTOS DE TRABAJO EN OTRAS ADMINISTRACIONES Solikik balioetsiko da egitekoen ziurtagiria aurkezten bada / Solamente se valorará si se aporta el certificado de funciones		
1		
2		
3		
IKASKETA TITULUAK / TÍTULOS ACADÉMICOS		
1		
2		
3		
PRESTAKUNTZA IKASTAROAK / CURSOS DE FORMACIÓN	Ordu kop. Nº horas	Noiz egina Fecha de realización
1
2
3
4
5
6
7
8
9
10

BEHEAN SINATZEN DUENAK

ESKATZEN DU: lanpostuak betetzeko lehiaketan onartua izatea.

ADIERAZTEN DU: eskaera orri honetan emandako datu guztiak egiazkoak direla eta deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

Vitoria-Gasteiz, 2016 -..... -

LA/EL ABAJO FIRMANTE

SOLICITA: Ser admitido/a al concurso de provisión de puestos.

DECLARA: Que son ciertos todos los datos consignados en esta instancia y que reúne todas las condiciones exigidas en las bases de la convocatoria.

Oharra: Eskatzaileak emandako datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartu eta behar den besteko babesarekin prozesatuko dira, eta bakar-bakarrik onartua izatea eskatu duen hautaketa prozesua kudeatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraiki.

Nota: Los datos de carácter personal suministrados por la/el solicitante serán incorporados a un fichero automatizado y tratados con el grado de protección adecuado, únicamente a efectos de gestión del presente concurso en el que solicita ser admitido/a, conforme a lo dispuesto por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y al Real Decreto 994/1999, de 11 de junio.

IV. ERANSKINA

DEITUTAKO LANPOSTUEN EGINKIZUNAK ETA ZEREGINAK

AGIRI HONETAN LANPOSTU BAKOITZAREN FUNTSEZKO ZEREGINAK JASO DIRA, BAINA HORREK EZ DU ESAN NAHI EREMU FUNTZIONAL BEREKO ETA BERE KATEGORIARI DAGOZKION BESTE ZEREGIN BATZUK EZ DIRENIK BETEKO, NAGUSI HIERARKIKOEK HALA AGINTZEN BADUTE

GARBIKETAKO ETA ZERBITZUETAKO ESPEZIALISTA

Eginkizunak

1. Aterpetxeko leku guztiak egunero garbitzea.
2. Koltxoien zorroak eta bestelakoak garbitzea eta lisatzea.
3. Kanpoaldea eskobatzea eta paperontziak garbitzea.
4. Jangelako arreta.
5. Jangela egunero garbitzea